

IRAKASKUNTZA-GIDA

2019/20

Ikastegia

135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua

Ikastaroa

2. maila

IRAKASGAIA

25797 - Kirol Jolasak

ECTS kredituak:

6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Ikasgai honek tradiziozko gazteen kirol joko-jolasak garatzen ditu, giza testuinguru berezitasunak eta barne logikako ezaugarrien arteko loturak azpimarratuz. Horretarako, Euskalherriko tradiziozko kirol joko-jolasen errepertorioa hartzen du ereduz.

Ekintza motorraren praktika eta analisi motorrean zentratuta, "Kirol jolasak" oso lotuta dago "Praxiologia motorra"-rekin, "Gorputz adierazpena eta dantza"-rekin, eta oro har graduan ematen diren kirol eta ikasgai motor guztiekin. Bestalde, heziketaren dimentsioa "Hezkuntzan" ikusiko du ikasleak.

Titulazioan oso irakasgai funtzeskoa da, ez bakarrik jarduera fisikoetako edozein interbentzioaren arlotan eskeintzen dituen baliabideengatik, baizik eta ezkeintzen dituen giza egituren aberastasunengatik eta sustatzen dituen efektu eta egoera pedagogiko berezitasunengatik.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

IRAKASGAIAREN GAITASUN ESPEZIFIKOAK

G1.Euskalherriko haurren tradiziozko kirol joko-jolas korpus bat ezagutu, euren estrategiak praktikan azalera ekarriz, eta barne logikaren elementuak aztertuz(jokalariak espazioarekin, besteekin, denborarekin eta objektuekin mantentzen dituen erlazioak).

Ikasketa Emaitzak: 1-Ikasleek motorezko gaitasunaren maila bat lortuko dute kirol joko-jolasetan, motorezko egituren ezagupen praktikoak eta inplikatura dauden gorputz teknikak oinarritz hartuz.

2-Ikasleak gai izango dira haur joko-jolas tradizionalak ondo deskribatzeko eta honekin batera fixxero bat egiteko gorputz tekniken ezagupenak, egiturak eta horien funtzioiak hainbat arlo pedagogikotan oinarritz hartuz.

G2.Kirol joko-jolasen eta kulturaren arteko harremana azaldu, Euskal Herriko testuinguruan oinarrituz, hau da, etxea ardatz moduan hartuz eta generoa, jaiak, apustuak eta animaliekiko harremanen ezaugarriak azpimarratuz.

Ikasketa Emaitzak: Ikasleak gai izango dira joko jolasen barne egitura eta Euskalherriaren giza testuinguruaren artean dagoen harremana ahoz eta idatziz azaltzeko.

ZEHARKAKO GAITASUNAK

G020. Egoera berrietara egokitze, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea.

Ikasketa Emaitzak: Ikasleek kirol joko-jolas multzo zabal batean parte hartuko dute, araudiak ulertuko dituzte eta, zuhertasunez eta testuingurua errespetatuz, estrategi motorrak azalaratu dituzte.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

- 1.Etnomotrizitatea. Gazteen kirol joko-jolasak eta kultur fisikoa Euskal Herrian.
- 2.Eremu etnomotorra. Ziurgabetasun espazioa eta kultur pentsamendua. Joko-jolasak ziurak eta ziurgabeak.
- 3.Harreman etnomotorrak. Parte-hartzaileen arteko giza-harremanak eta giza-rolak. Joko-jolasak psikomotorrak eta soziomotorrak.
- 4.Etnomotrizitatea eta denbora. Kultur denbora eta garaipen ludikoa. Joko-jolas gareiledunak eta garailegabeak.
- 5.Materiazko kultur ludikoa. Joko-jolasak tresnadunak eta tresnagabedunak.
- 6.Kirol joko-jolasen kultur esanahia. Jokoa eta jolasa, jokabide ludikoaren esanahia, giza-jokabidearen eredua.
7. Joko-jolasak eta emozioak.

METODOLOGIA

Ikasgaiaren edukiak modu honetan garatuko dira:

Saio magistralak: Saio teorikoak PPT aurkezpenekin, non azalpenez gain, irakurketak, eztabaidak eta ariketak egingo diren kultura eta kirol joko-jolasekin lotzeko. Saio magistralak ikasgelan egingo dira.

Praktikak: Saio praktikoak non kirol joko-jolasak jolasteaz gain, denbora erabiliko da joko-jolas horien deskribapen literarioa, barne logika eta ilustrazio grafikoa lantzeko. Saio praktikoak Fakultateko polikiroldegian eta kanpoko errezintoan egingo dira. Ikasgai honen ezaugarriak direla eta, ezinbestekoa da praktiketan lankidetzako jarrera, interesa eta bata bestearikiko begirunez parte hartzea. Honekin lotuta, zeharkako gaitasuna G020 saio praktiketan landuko da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		45						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	22,5		67,5						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 30
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 70

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

G020 zeharkako gaitasuna eta gaitasun espezifikoak lotuta ebaluatuko dira modu honetan:

1.- EBALUAZIO JARRAIA:

- Balorazio PRAKTIKOA (notaren %70): Eskatzen du:
 - + PRAKTIKA MOTORRA egitea (nota osoaren %40): Aukeratutako 50 inguru kirol joko-jolas corpus baten proposamena jolastea, non ikasleek motorezko gaitasunaren maila bat erakutsiko duten, beti ere estrategia motorrak zuhurtasunez azalaratuz eta testuingurua errespetatuz(espazioa, besteak, denbora eta objektuak)
 - + IDATZITAKO ARIKETA PRAKTIKOA (notaren %30): Joko-jolas horiek identifikatzea, araudien deskribapen literarioa idaztea, barne logika argitzea eta irudimen grafikoa egitea.

Praktika horietako balorazioa eta kalifikazioa eguneratutako rubriketan oinarrituko dira, horiek e-gela plataforman argitaratuta.

- Balorazio TEORIKOA (notaren %30): IDATZITAKO ARIKETAK Euskal Herriko kirol joko-jolasen esanahi kulturala aztertzeke.

Ikasleak bai zati praktikoa bai zati teorikoa gainditu behar du azken nota osatzeko. Ebaluazio jarraia jarraitzen duen ikasle batek ikasgaiaren zati bat gainditzen ez badu (hau da, teorikoan 3 puntutik 1,5 puntu baino gutxiago, eta praktikoan 7 puntutik 3,5 baino gutxiago), ohiko deialdian aurkeztu daiteke bakarrik gainditu ez duen zatia egiteko.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazioaren bidez ebaluatutako izateko. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta horretarako, bederatzi asteko epea izango du, lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

2.- EBALUAZIO FINALA:

Ikasleak aukera izango du irakasgaiaren %100 ebaluatzeke modu honetan:

- Balorazio PRAKTIKOA (notaren %70): Eskatzen du:
 - + Kirol joko-jolas corpus baten PRAKTIKA MOTORRA KLASEAN eginda(nota osoaren %20), non ikasleek motorreko gaitasun SOZIOMOTORRAREN maila bat erakutsi izango duten, beti ere estrategia motorrak zuhurtasunez azalaratuz eta testuingurua errespetatuz(espazioa, besteak, denbora eta objektuak)
 - + AZTERKETA PRAKTIKO PSIKOMOTORRA(nota osoaren %20): Praktika psikomotorraren azterketa bat non ikasleek motorreko gaitasun psikomotorraren maila bat erakutsiko duten.
 - + IDATZITAKO AZTERKETA PRAKTIKO bat (nota osoaren %30): non ikasleek joko-jolas horien deskribapen literario, analisi eta ilustrazioaren garatzeko gaitasuna erakutsiko duten.

Praktika horietako balorazioa eguneratutako rubriketan oinarrituko dira, horiek e-gela plataforman argitaratuta.

- Balorazio TEORIKOA (notaren %30):
 - + Idatzitako azterketa bat kirol joko-jolasen kultur esanahiaren analisisa garatzeko.

Ikasleak bai zati praktikoa bai zati teorikoa gainditu behar du azken nota osatzeko.

Deialdi uko egitea:

1. Deialdiari uko egiten dioten ikasleek "aurkezteke" kalifikazioa jasoko dute.

2. Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bata irakasgaiko kalifikazioaren %40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa aurkezteke izan dadin. aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren %40 edo hori baino txikiagoa, dialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

3. azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

Ebaluazioa eta ikasketen ohiko printzipio etikoen urratzea eginez gero, kalifikazioa ZEROz izango da (SUSPENTSOA)

EZOHICO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio jarraia jarraitu duen ikasle batek, ohiko deiladiaren ondoren, ikasgaiaren zati bat gainditu gabe geratzekotan (teorikoa edo praktikoa),ez ohiko deialdian aurkeztu daiteke bakarrik gainditu ez duen zatia egiteko.

Ikasleak aukera izango du irakasgaiaren %100 ebaluatzeko modu honetan:

- Balorazio PRAKTIKOA (notaren %70): Eskatzen du:

- Balorazio PRAKTIKOA (notaren %70): Eskatzen du:

+ Kirol joko-jolas corpus baten PRAKTIKA MOTORRA KLASEAN eginda(nota osoaren %20), non ikasleek motorreko gaitasun SOZIOMOTORRAREN maila bat erakutsi izango duten, beti ere estrategia motorrak zuhurtasunez azaleratuz eta testuingurua errespetatuz(espazioa, bestea, denbora eta objektuak)

+ AZTERKETA PRAKTIKO PSIKOMOTORRA(nota osoaren %20): Praktika psikomotorraren azterketa bat non ikasleek motorreko gaitasun psikomotorraren maila bat erakutsiko duten.

+ IDATZITAKO AZTERKETA PRAKTIKO bat (nota osoaren %30): non ikasleek joko-jolas horien deskribapen literario, analisi eta ilustrazioaren garatzeko gaitasuna erakutsiko duten.

Praktika horietako balorazioa eguneratutako errubriketan oinarrituko dira, horiek e-gela plataforman argitaratuta.

- Balorazio TEORIKOA (notaren %30):

+ Idatzitako azterketa bat kirol joko-jolasen kultur esanahiaren analisisa garatzeko.

Ikasleak bai zati praktikoa bai zati teorikoa gainditu behar du azken nota osatzeko.

Deialdi batean ikaslea aurkezten ez bada, deialdi horri uko egiten diola ulertzen da eta horren ondorioz ez da deialdien zenbaketan kontuan hartuko, eta Ez Aurkeztuta agertuko da kalifikazioetan.

Ebaluazioa eta ikasketen ohiko printzipio etikoen urratzea eginez gero, kalifikazioa ZEROz izango da (SUSPENTSOA)

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

CEMÉA. Groupe national de recherche "Jeux et Pratiques Ludiques" (1999).- Jeux sportifs. 24 jeux sans frontières.Paris: Ceméa Publications.

CEMÉA. Groupe national de recherche "Jeux et Pratiques Ludiques"(2010).- Jeux du monde, d'ici et d'ailleurs.Paris: Ceméa Publications.

CEMÉA. Groupe national de recherche "Jeux et Pratiques Ludiques"(2015).- Jeux d'autrefois, jeux d'avenir.Paris: Ceméa Publications.

Etniker (1993). - Juegos infantiles en Vasconia. Bilbao: Etniker, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua.

Etxebeste, J. (2001). Les jeux sportifs, éléments de la socialisation traditionnelle des enfants du Pays Basque. Thesis (Ph. D.) -Université Paris V - Rene Descartes-Sorbonne.

Etxebeste, J. y Urdangarin, C. (2004). "Reflexiones sobre la Educación Física de hoy a la luz de las características de la cultura tradicional vasca". En: La ciencia de la acción motriz. Lleida: U.Lleida Editorial.

Etxebeste, J. y Urdangarin, C. (2005). Euskal jokoa eta jolasa. Transmittiendo una herencia vasca a partir del juego. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

Etxebeste, J. (2002). Jokoa y jolasa; dos conceptos vascos para el juego. En: Llibre de les actes del cinquè congrés de ciències de l'esport, l'educació física i la recreació. Lleida: INEFC Lleida, pp.267.-276.

Parlebas, P. (2001). Juegos, deporte y sociedad. Léxico de praxiología motriz. Barcelona: Paidotribo.

Parlebas, P. (1988). Elementos de sociología del deporte. Málaga: Junta de Andalucía: Universidad Internacional Deportiva.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Caro Baroja, J.(1971). Los vascos. Madrid : Itsmo.

During, B.(1981). La crisis de las pedagogías corporales. Malaga : Unisport, Junta de Andalucía.
Hall. E.T.(1978). La dimension cachée. Paris : Editions du Seuil.
Lagardera, F., & Lavega, P. (2003). Introducción a la praxiología motriz. Barcelona: Paidotribo
Mead, M.(2001). Growing up in New Guinea. Perennial Classics : New York.
Zulaika, J.(1990).Ehiztariaren erotika. Donostia : Erein.

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK